

## 45. FITXA. Toki-erakundeei zuzendutako laguntzak, haien eraldaketa digitalerako eta modernizatorako

**Nori zuzenduta:** 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerriei, probintziako hiriburu direnei izan ezik.

**Sartzeko esteka:** [Lurralde Politikako Ministerioa](#)

**Eremuak:** Eraldaketa Digitala

**Zenbatekoa:** 154.508.061,23 €

**Aurkezteko amaiera-data:** 2022ko abenduaren 15a (15:00etan)

### Laburpena

Deialdi honek **toki-erakundeetako administrazioen eraldaketa digitala eta modernizazioa** ditu xede.

Agindu honen babesean ematen diren dirulaguntzak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) barruan sartzen dira, eta oinarrietako 5. artikuluan adierazitako **ildo estrategikoren** batean kokatzen diren toki erakundeetako administrazioen eremuan modernizazio- eta digitalizazio-proiektuak finantzatzera bideratuko dira. Plan horren edukia bat dator 2025eko Estrategia Digitalarekin, Administrazio Publikoak Digitalizatzeko 2021-2025 aldiko Planarekin eta sektore publikoa modernizatzeko beste ekintza batzuekin.

### Jarduera-lerroak

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako **helburu** orokor hauek izango dituzte:

- Zerbitzu publiko digitalen irisgarritasuna hobetzea, bai herritarrentzat, bai enprezentzat.
- Eten digitala murriztea.
- Enplegatu publikoen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea.
- Eraikitako zerbitzu eta soluzio digitalak berrerabiltzea.
- Zerbitzu digital berriak hedatzeko orduan, sortzen ari diren teknologiak (chatbot-ak, automatizazioa eta robotizazioa, plataformak, etab.) modu aktiboan erabiltzea.

Honako hauek dira **ildo estrategikoak**:

#### a) 1. ildo estrategikoa. Herritarrei zuzendutako administrazioa.

- Helburua: herritarrei eta enpresei ematen zaizkien zerbitzu publikoak hobetzea, zerbitzu publiko digitalen erabilgarritasuna, baliagarritasuna, kalitatea, irisgarritasuna eta mugikortasuna sustatuz, eta prozesuen modernizazioa bultzatuz.

- Diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

- Gehien erabiltzen diren zerbitzuetarako aplikazioak garatzea, edukien erabilgarritasunean, irisgarritasunean eta pertsonalizazioan arreta berezia jarrita.

ii. Herritarrei eta enpresei arreta emateko laguntzaile birtualak garatzea edo erabiltzen hastea, bereziki herritarrak eta enpresak orientatzeko eta babesteko, horiek erabiltzeak inpaktu handiena izango lukeen kasuetan.

iii. Toki-erakundeek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu publikoak digitalizatzeko plataformak garatzea, gizarte-zerbitzuekin edo zaintzen ekonomiarekin lotutakoak bereziki.

Aurreikusi da —168. helburuan eta 169. mugarrian zehaztutako eremuen arabera— jarduketa horien bidez zuzenean lagunduko dela eraldaketa digitala lortzen, proaktibitateari, mugikortasunari eta erabiltzailearen esperientziari dagokienez.

#### **b) 2. ildo estrategikoa. Eragiketa adimendunak.**

- Helburua: administrazio publikoen kudeaketa- eta izapidetze-zerbitzu eta -prozesuen kalitatea, kantitatea eta eraginkortasuna hobetzea, automatizazio adimenduneko teknologiak erabilia (prozesuen robotizazioa, adimen artifiziala, etab.).

- Diruz lagundu daitekeen jarduketa:

Herritarrek eta enpresek gehien erabiltzen dituzten zerbitzuak emateko prozesuen automatizazio adimenduna, adimen artifizialean, prozesuen kudeaketa adimendunean, prozesuen robotizazioan edo antzekoetan oinarritutako teknologiak erabiliz, izapidetze-epreak murrizteko eta zerbitzua hobetzeko.

Horri dagokionez, eta 168. helburuan eta 169. mugarrian definitutako esparruekin bat etorrira, ildo horrek lagundu egingo du eraldaketa digitala lortzen, automatizazioari eta datuetan oinarritutako administrazio publikoari dagokienez.

#### **c) 3. ildo estrategikoa. Datuaren gobernuua.**

- Helburua: herritarrek, enpresek eta enplegatu publikoek datuetarako duten sarbidea demokratizatzea, informazioa askatasunez eskuratzeko eta erreplikatzeko aukera emanez, eta datuak herritarrei zuzendutako balio erantsi handiko zerbitzu digitalak garatzeko erabiltzea.

- Diruz lagundu daitekeen jarduketa:

Datuaren plataforma integragarri bat garatzea, datuen federazioaren ikuspegitik, Estatuko Administrazio Orokorraren Data lake-arekin, Estatuko Administrazio Orokorraren eta beste administrazio publiko batzuen arteko proiektu elkarreragingarriak gaitu ahal izateko.

Halaber, eta 168. helburuan eta 169. mugarrian definitutako esparruekin bat etorrira, ildo horrek lagundu egingo du eraldaketa digitala lortzen, automatizazioari eta datuetan oinarritutako administrazio publikoari dagokienez.

#### **d) 4. ildo estrategikoa. Azpiegitura digitalak.**

- Helburua: tokiko administrazioek modernizatzeko behar dituzten azpiegitura teknologikoak ematea, edozein egoeratan erabilgarri daudela ziurtatzeko moduan eta une bakoitzeko beharretara egokitzeko gaitasunarekin, administrazioetan konektagarritasun digitala, datuaren ekonomia eta adimen artifiziala garatzen laguntze aldera.

- Diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

i. Cloud soluzioak eta azpiegitura iraunkorrak erabiltzen hastea, jasotako azpiegiturak irtenbide berrietara migratzeko aukera kontuan hartuta; kudeaketa- eta hornidura-prozesuak optimizatzea, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa ekar baitezakete.

ii. Lanpostu adimendunak ezartzea.

iii. Azpiegitura fisikoak eta sarbide digitaleko puntuak, zerbitzuen automatizazioa errazteko eta zerbitzuak beraiek arintzeko.

Halaber, eta 168. helburuan eta 169. mugarrian zehaztutako esparruekin bat etorrira, ildo horrek lagundu egingo du eraldaketa digitala lortzen, azpiegitura fisikoei, logikoei eta softwareari dagokienez.

**e) 5. ildo estrategikoa. Administrazio digitaleko oinarrizko zerbitzuen elkarreragingarritasuna.**

- Helburua: Administrazio digitaleko oinarrizko zerbitzuen gutxieneko multzo baten elkarreragingarritasuna bermatzea (erregistro elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa, fakturazio elektronikoa eta espediente irekien integrazioa, eta Estatuko sektore publikoko herritarren karpeta).

- Diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

- i. Sarrerak eta irteerak erregistratzeko aplikazio bat egotea, zeina erabat elkarreragingarria izango baita Erregistroen arteko konexio-sistemaren bidez.
- ii. Jakinarazpen elektronikoa kudeatzea eta horiek Gaitutako Helbide Elektroniko Bakarrari atxikitzea.
- iii. Fakturazio elektronikoa kudeatzea, Estatuko Administrazio Orokorraren FACe atariari atxikita, edo tokiko edo autonomia erkidegoko faktura elektronikoen sarbide-puntu orokor baten bidez.
- iv. Irekitako espedienteen egoera Estatuko sektore publikoko Herritarren Karpetarekin integratzea.

168. helburuan eta 169. mugarrin definitutako esparruekin bat etorrira, ildo horrek lagundu egingo du eraldaketa digitala lortzen, automatizazioari eta datuetan oinarritutako administrazio publikoari dagokienez.

## Gastuen aldi hautagarria

Proiektua gauzatzeko epea emakida-ebazpenean zehaztuko da eta, nolahi ere, **2020ko otsailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean** egongo da.

## Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

Deialdi honetako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa **154.508.061,23 €-koa** da.

**Erakunde onuradunen arteko esleipena biztanle-kopuruaren arabera zehaztu da** 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerrien kasuan; araubide erkidedun eta foru-araubidedun aldundien, kabildoen, uharteetako kontseiluen eta probintzia bakarreko autonomia erkidegoen kasuan, berriz, kontuan hartuko da probintziako 20.000 biztanletik beherako biztanleen guztizko kopurua; eta Ceutaren eta Melillaren kasuan, bertako biztanle-kopurua. Horretarako, 2020ko urtarrilaren 1eko Udal Erroldaren berrikuspeneko biztanle-kopuruak hartuko dira aintzat.

**Oinarrien VII. eranskinean erakunde horietako bakoitzari dagokion laguntzaren gehieneko zenbatekoa zehazten da.**

## Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

**Diruz lagundu ahal izango dira** kapital-ondasunak sortzeko edo eskuratzeko inbertsio-gastuak, zerbitzuen funtzionamendu operatiborako beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak eskuratzeko gastuak eta amortizagarriak diren beste gastu immaterial batzuk, betiere diruz lagundutako helburuen izaerarekin bat badatoz.

Gastuak diruz lagundu ahal izateko, derrigorrezkoa da erakunde onuradunak gastua egikaritze-aldian ordaindu eta egin izana. Ondorio horietarako, gastua benetako ordainketa egin denean soilik joko da ordaindutzat.

Gastua finantzarria izan dadin, beharrezkoa izango da, batetik, produktuak eta zerbitzuak entregatu eta eman izana; bestetik, erakunde onuradunek aitortutako gastua ordaindu izana eta, azkenik, oinarrien 2. artikuluan aurreikusitako egintzak eta xedapenak betetzea. Halaber, hori egin izana egiaztatzen duten agiriak egon beharko dira, egiaztagarria izan dadin. Eta gauzatutako ekintzek beren funtzionaltasuna egikaritze-aldiaren barruan lortu izana eskatuko da. Horretarako, erabat operatiboak izan beharko dira, eta beren izaerarekin bat datozen zerbitzuak emateari edo erabiltzeari atxikita egon beharko dira.

## Diruz lagunduko ez diren kontzeptuak

**Ez dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko** edozein administrazio-baimen, lizentzia, abal edota fidantzen kostu, tasa, zerga edo tribututatik eratorritakoak. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo zeharkako zerga baliokidea diruz lagundu ahal izango da, baldin eta ezin bada berreskuratu edo konpentsatu, ez osorik, ez partzialki.

Ondoren zerrendatzen diren gastuak ere ez dira diruz lagunduko:

- a) Interes zordunak eta gainerako finantza-gastuak.
- b) Berandutze-interesak, errekareruak, isun eta zehapen ekonomikoak, eta auzi eta lege-egtabaidengatik sortutako gastua.
- c) Ondasunak eta zerbitzuak kontratu publikoen bidez eskuratzean:
- d) Gastu propioak edo proiektuei lotutako kostuak (langileak, funtzionamendua edo gastu orokorrak).
- e) Behar bezala justifikatu gabeko gastuak.
- f) Proiektuak prestatzeko, diseinatzeko edo lizitatzeko lanei lotutakoak.
- g) Errepikakorrak direnak (mantentze-lanak).

## Bestelako informazioa

Erakunde onuradunek hirugarrenekin hitzartu ahal izango dute proiektuen gauzatze osoa edo partziala, kasuan kasuko lizitazio-prozeduren bidez, edo osorik edo partzialki gauzatu ahal izango dute, baliabide propioei egindako enkarguen bidez.

Azpikontrastek erakunde onuradunaren aurrean bakarrik izango dute betebeharra. Era berean, erakunde horrek, aldi berean, bere gain hartuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa administrazio emakida-emailearen aurrean.

Dirulaguntza horren xede den jarduketaren zati bat edo jarduketa osoa azpikontratatz gero, laguntzaren erakunde onuradunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu azpikontrastek 4. artikuluan jasotako betebeharrak eta, zehazki, «ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (DNSH) betetzen dituztela bermatzeko. Erakunde onuradunak, nolahi ere, kontratistei eta azpikontrastetegi buruzko informazioa eman beharko dio dirulaguntza ematen duen organoari.